

**TABAKALERA**



PRENTSA  
DOSIERRA

**TABAKALERA  
ARKITEKTURA  
LEHIAKETAREN  
EPAIA**



- 1. PRENTSA OHARRA**
- 2. PROIEKTU IRABAZLEA**
- 3. SARIEN ETA SARITUEN  
ZERRENDA**
- 4. LEHIAKETA PROZESUAREN  
LABURPENA**
- 5. EPAIMAHAIAREN OSAKETA**
- 6. LEHIAKETAREN  
OINARRIEN LABURPENA**

- 1. ERANSKINA**  
**Talde irabazleko kideen**  
**Curriculum Vitae-ak**



# 1. PRENTSA OHARRA

3

## **JUAN MANUEL MONTERO MADARIAGA ETA NAIARA MONTERO VIAR DIRA TABAKALERAREN BERRITZE ARKITEKTONIKORAKO LEHIAKETAKO IRABAZLEAK**

Juan Manuel Montero Madariagak eta Naiara Montero Viarrek osatutako ABEE (Aldi Baterako Enpresen Elkarte) izan da Tabakaleraren Berritze Arkitektonikorako Nazioarteko Lehiaketaren irabazlea

Erabakia KGNZko Administrazio Kontseiluak hartu zuen joan den abenduaren 12an, Lehiaketako Epaimahaiak egindako proposamena onetsita.

Epaimahaiak ondoko alderdiak baloratu ditu bereziki irabazle izan den proiektuan:

Etorkizuneko zentroaren erabilpen premiei emandako erantzun hobea eta premia horietara egokitzeko gaitasuna.

Eraikinaren albo batean (gaur egungo Egia auzorako sarbide den lurpeko pasabidearen alboan) plaza hiritar berri bat eraikita, eraikina hirira irekitzen du. Soluzio honek hiriko integrazioa modu berritzaile batean planteatzen du, maila berean komunikatuz Kristina Enea parkea –eta Egia auzoa– Tabakalera eta hiriko erdigunea (horixe da proiektuaren goiburuaren abiapuntua: “3 en RAYA” – “hiru lerroan”)

Eraikinaren gainean nabarmentzen eta altxatze den elementu berri baten erakuntza: eraikinaren erdiko gorputzaren gainean kokatuko den beirazko bolumentak bere ikono izaera indartuko du eta hiriaren gaineko ikuspegi berri bat eskainiko du.

Horietaz gain, proposamen honen beste meritu batzuk ere kontuan izan dira, hala nola, eraikinaren fabrika izaerarekiko errespetua, sormena eta berrikuntza, funtzionalitatea, koherentzia konstruktiboa eta honen lotura eraikuntza eta mantenu kostuekin, pertsona eta objektuen mugikortasunarekiko eraginkortasuna, jasangarritasun estrategiak eta ingurugiroarekiko errespetua edo instalazioen integrazioan duen eraginkortasuna...

Irabazle izendatutako taldeak obren Exekuzio-Proiektua erredaktatzeko eta lanak zuzentzeko ardura izango du. Proiektuaren erredakzioa burutzeko Lehiaketaren epaia eman denetik bederatzi hilabetetako epea izango dute.

Juan Manuel Montero Madariagak eta Naiara Montero Viarrek aurkeztutako proiektuaren ezaugarri nagusiak aurretik baden eraikinarekiko errespetua eta bere balioestea dira. Horretarako, eraikina “hiriko ikono” eta erreferentziatzko eraikin egiten duten balioak indartuko lituzketen elementu eta baliabide arkitektonikoak erabiliko dituzte.

Juan Manuel Montero Madariaga Bartzelonan kokatutako TAU (Taller de Arquitectura y Urbanismo) estudioko kide da eta Naiara Montero Viarrek bere estudio propioa du A Coruña. ABEE (Aldi Baterako Enpresen Elkarte) honek eskarmentua eta gaztetasuna uztartzen ditu bere lanetan, arkitekturaren esparruan, barneen diseinuan, espazio publikoetarako lanetan eta baita hirigintzan ere. Hainbat lehiaketa publiko



## 1. PRENTSA OHARRA

eta pribaturen irabazle izan dira, argitalpenak egin eta errekonozimenduak jaso dituzte. Biak proiektuen irakasle dira Bartzelonan eta A Coruñan, hurrenez hurren. ([www.jonmontero.com](http://www.jonmontero.com))

4

Lehiaketako bigarren saria Donostiako VAUMM Arkitektura eta Hirigintza S.L.P. estudioarentzat izan da eta hirugarren saria, berriz, Bartzelonako SOB Arquitectos S.L. estudioarentzat.

Eman diren hiru accesitak Kanaria Handiko Las Palmaseko nred arquitectos-entzat, Berlingo Dietmar Leyk eta Petra Wollenberg-entzat eta Madrilgo Carlos Manzano Arquitectos S.A. estudioentzat izan dira.

Azkenik, hiru aipamen ere izan dira, ondoko talde hauek aurkeztutako proiektuentzat: Langdon Reis Architects Ltd (Londres), Isabel de Rentería Cano (Bartzelona) eta Alonso, Balaguer y Arquitectos Asociados S.L. (Bartzelona)

Tabakalerako web orriak, [www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu), saritutako proiektu guztiei buruzko informazioa eskaintzen du eta aurki, aurkeztu diren proiektu guztiei buruzkoa ere eskainiko du.

Ostegunean, abenduak 18, arratsaldeko 19:30ean, Joxean Muñoz, Tabakalerako zuzendari nagusiak, talde irabazlearekin batera, publikoki aurkeztuko du arkitekturen proiektua Tabakalera.

Donostian, 2008ko abenduaren 16an



## 2. PROIEKTU IRABAZLEA

5



Tabakaleraren Berritze Arkitektonikorako Nazioarteko Lehiaketa irabazi duen proiektua Juan Manuel Montero Madariagak eta Naiara Montero Viarrek aurkeztu zuten, “3 en RAYA” izenburupean.

### **GOGOETA OROKORRAK**



Lehiaketaren helburura egindako lehen hurbilketa batean, irabazle suertatu den

proposamenak hiru norabidetan laburbiltzen du euren gogoeta arkitektonikoen prozesua:

Hiriko kokapena. Tabakalera gunen zentral bezala ulertzen du Egia auzoa eta Kristina Enea parkea hiriko erdigunearekin elkartzen dituen ardatz horretan. Hiriko komunikazio azpiegiturei dagokionez ere eraikinaren kokapena giltzarri dela azpimarratzen du: tren geltokiak aurki A.H.T.ren geltokia eta autobus gel-



## 2. PROIEKTU IRABAZLEA



toki nagusia hartuko ditu. Ondorioz, Tabakalera komunikazio gune bilakatu da, auzo arteko “eraikin-bisagra” eta hiriari zentralitate berri bat emango dion kokalekua.

Eraikinaren izaera arkitektonikoa, eraikina “hiriko ikono” bilakatzen duena. Gutxitan esan liteke eraikin bat enblematikoa denik, soilik hainbat faktorek bertan bat egiten dutenean: bere tamainak, balio historikoak, izaera arkitektonikoak eta garrantzi tipologikoak.

Tabakalera proiektua ikusizko arteei eskainitako etorkizuneko kultur zentro gisa. Ikusizko eta ikus-entzunezko sorkuntza garaikidea bultzatuko ditu, eta hiriari zabalduko gunea izango da.

### HELBURUAK ETA JARDUKETA NAGUSIAK

Eraikinaren balio arkitektonikoa eta tipologikoa aztertu ostean, proiektuak

honen ezaugarri adierazgarrienak mantentzeko eta balioesteko estrategiak zehazten ditu. Horrela, proiektua uneoro eraikuntza-koherentzia gorena mantentzen saiatzen da, eraikinaren egituretan interbentzio minimoak egiteko helburuarekin.

Proiektuaren proposamenak eraikinaren iparreko aldean (egungo lurpeko pasabidea, hiriko erdigunea Egia auzoarekin lotzen duena) “loggia” bat eraikitzea proposatzen du, plaza hiritar berri bat sortuz sotoaren kotan, funtzio anitzekoa eta neurri batean estalia izango den espazio bat. Horrela, lurpeko pasabide aldetiko sarbideari soluzio bat emango lioke eta zuzenean komunikatu ahal izango litzateke eraikineko sarbide mekaniko berriekin eta etorkizuneko Tabakalera gurutzatuko duen “kale nagusiarekin”.


Eraikuntza berriko espazio hiritar hori, “loggia”, proiektuaren oinarritzko pieza da; giltzarria da proiektuaren goiburuari bide ematen dion “hiru lerroan” osatzeko. Balizko diagonal baten bidez, jokoan dauden hiru fitxak erlazionatzea lortuko litzateke horrela: Kristina Enea parkea (eta Egia auzoa), Tabakalera eta ibaia-aren beste aldean kokatutako hiriaren zabalgunea.

Proposamenak biltzen duen beste jarduketak bat, eraikinaren erdiko gorputzaren gainean beirazko bolumen berri bat eraikitzea litzateke, energia alternatiboa bilatzeko (plaka fotovoltaikoak) eta eraikinaren irudi simetrikoa indartzeko helburuarekin. Azken solairu esanguratsu honek jabetzetara bideratutako espazio publikoak hartuko ditu, hiriaren gaineko ikusmira zoragarriekin, eta gauez argi bolumen batean bilakatuko da, hiriko itsasargi handi bat bailitzan.

Proiektuak egun eraikinaren sarrera dagoen lekuan altzairu eta beirazko gorputz txiki bat kokatzea ere proposatzen



## 2. PROIEKTU IRABAZLEA



7



du. Honek etorkizuneko Tabakaleraren sarrera eta harrera zerbitzuak beteko ditu, eta era berean, aurreikusitako egitaraua proiektatzeko pantaila baten euskarri ere izango da.

Urumea ibaiari begira dagoen fatxadari dagokionez, proiektuak kontuan hartzen du trenbideen gainean plataforma handi bat eraikitzeko burutu daitekeen proiektua, eraikinaren lehen solairuaren altueran geratuko litzatekeena.


Azkenik, proposamen honekin Lehiaketaren Oinarrietan aurreikusitako erabilpenekiko egokitzapena ahalik eta zorrotasun handienarekin burutzen saiatzen da proiektua, bai azalerei dagokienez, erabilpen eta instalazioen gertutasunari dagokionez eta baita mota ezberdinetako sarbideei dagokienez ere.

Juan Manuel Montero Madariaga Bartzelonan kokatutako TAU (Taller de Arquitectura y Urbanismo) estudioko kide da eta Naiara Montero Viarrek bere estudio propioa du A Coruña. ABEE (Aldi Baterako Enpresen Elkartzea) honek eskarmentua eta gaitetasuna uztartzen ditu bere lanetan, arkitekturaren esparruan, barneen diseinuan, espazio publikoetarako lanetan eta baita hirigintzan ere. Hainbat lehiaketa publiko eta pribaturen irabazle izan dira, argitalpenak egin eta errekonozimenduak jaso dituzte. Biak proiektuen irakasle dira Bartzelonan eta A Coruña, hurrenez hurren.



[www.jonmontero.com](http://www.jonmontero.com)



## 2. PROIEKTU IRABAZLEA



SECCIÓN S2





## 3. SARIEN ETA SARITUEN ZERRENDA

9

KGNZko Administrazio Kontseiluaren behin betiko epai arrazoitua, 2008ko abenduaren 12koa, web orrian, [www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu), argitaratuko da "Kontratatzailearen profila" atalean.

### SARIAK

#### 1. Sarria

Tabakaleraren Berritze Arkitektonikorako Nazioarteko Lehiaketaren irabazlea:

Juan Manuel Montero Madariaga eta Naiara Montero Viar (Bartzelona)

Goiburua: 3 en RAYA .....36.000€\*

\* (aurrerapen gisa, ordainsarien eta proiektua idazteko eta lana zuzentzeko kontratu esleipenaren kontura, Lehiaketako pleguetan zehaztutako baldintzen arabera)

#### 2. Sarria

VAUMM Arkitektura eta Hirigintza S.L.P. (Donostia)

Goiburua: TABAKALEA .....36.000€

#### 3. Sarria

SOB Arquitectos S.L. (Bartzelona)

Goiburua: I + I = T .....30.000€

### ACCESITAK:

#### 1. accesita

nred arquitectos (Las Palmas Kanaria Handikoa)

Goiburua: elevarte .....18.000€

#### 2. accesita

Dietmar Leyk eta Petra Wollenberg (Berlin)

Goiburua: alpha 23.....12.000€

#### 3. accesita

Carlos Manzano Arquitectos S.A. (Madril)

Goiburua:TABAKALEA .....6.000€



### 3. SARIEN ETA SARITUEN ZERRENDA

#### **AIPAMENAK:**

10

(Aipamenetarako proposatutako hiru taldeetako bakoitzak 3.000€-ko konpentsazio ekonomiko hartuko dute.)

Langdon Reis Architects Ltd (Londres)  
Goiburua: N2MRA

Isabel de Rentería Cano (Bartzelona)  
Goiburua: T\_KALERA

Alonso, Balaguer y Arquitectos Asociados S.L. (Bartzelona)  
Goiburua: "no me pidas que te mire porque te miraré"



## 4. LEHIAKETA PROZESUAREN LABURPENA

TABAKALERAK 2008ko ekainaren 27 eraikinaren Berritze Arkitektonikorako Nazioarteko Lehiaketa deitu zuen, Donostiako antzinako tabako fabrika Ikusizko Kulturaren espezializatutako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro bilakatzeko xedearekin.

11

Lehiaketa bi etapatan planteatu zen. Lehenengoan 110 taldek izena eman zuten lehiaketan parte hartzeko. Behin izenemateko dokumentazioa egiaztatuta, horietatik 61 taldek euren proiektu proposamenak aurkeztu zituzten irailaren amaiera aldera.

61 talde horietatik 16 Euskal Autonomia Erkidegokoak ziren, 4 Nafarroakoak, 16 Madrilgo Erkidegokoak, 7 Kataluniakoak, 9 Estatuko gainerako erkidegoetakoak eta 8 Europako hainbat herrialdeetakoak.

Azaroaren erdialdera Lehiaketako epaimahaiak finalista izateko hiru talde proposatu zituen – bi kataluniarrak eta bat Donostiakoa –, eta hiru accesit eta hiru aipamen posible ere proposatu zituen, Lehiaketako oinarrietan zehaztuta zegoen bezala.

Bigarren fasean, hiru talde finalistek epaimahaiak planteatutako zenbait konturi irtenbidea eman behar izan zieten euren proposamenetan. Azkenik, joan den abenduaren 12an, epaimahaik bere iritzia eman ostean, KGNZko Administrazio Kontseiluak aipatu sariak eman zituen. Behin Lehiaketaren epaia emanda, irabazleak 9 hilabete izango ditu obren Exekuzio Proiektua erredaktatzeko.



## 5. EPAIMAHAIAREN OSAKETA

Tabakaleraren Berritze Arkitektonikorako Nazioarteko Lehiaketa honetako epaimahaia honako kide hauek osatu dute:

12

### PRESIDENTEA

Odón Elorza, Donostiako alkatea eta KGNZko presidentea.

### PRESIDENTEORDEA

M<sup>a</sup> Jesús Aranburu , Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko diputatua eta KGNZko presidenteordea.

### BOKALAK

Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta KGNZko Administrazio Kontseiluko kidea.

Joxean Muñoz, KGNZko zuzendari nagusia.

Iñaki Galarraga, arkitekturaren doktorea eta KGNZko Arkitektura zuzendaria.

Antón López de Aberasturi, arkitekturaren doktorea eta eraikinetako instalazioetan eta berritze lanetan aditua.

Bernhard Serexhe, ZKMko Media Museumeko Departamentu burua, Karlsruhe (Alemania)

Juan Carlos Cuevas, Donostiako udaleko Hirigintza Zuzendaritzako Proiektuen Kudeaketa Unitateko arkitekto-burua.

Sofía Juaristi, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuko Ondare eta Arkitektura Zerbitzuko arkitekto-burua.

Gaizka Camino, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Kultura Ondareko arkitektoa.

### IDAZKARIA

Juan Carlos Etxezarreta, KGNZko idazkaria



## 6. TABAKALERAREN BERRITZE ARKI-TEKTONIKORAKO LEHIAKETAKO OINARRIEN LABURPENA

13

### TABAKALERA PROIEKTUA

26.000 m<sup>2</sup>-rekin, Donostiako antzinako tabako fabrika hiriko eraikinik handiena da. 1913an eraiki zen, XIX. mendeko parke eder dotore baten eta trenbide geltokiaren artean. Parkea orain publikoa da eta geltokiak aurki A.H.T. eta autobus geltoki nagusia hartuko ditu.

Donostiako udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak partaidetza bera dute Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro bilakatzeko proiektuan; kultur fabrika bat sortzeko teknologikoki aurreratua den ingurune batean. Tabakalera proiektu berezia da eta berezko nortasuna du, baina kultur esparruak partekatzen duen proiektua ere bada.

Zentroaren ezaugarri nagusiak berrikuntzari emango dion bultzada eta diziplina anitzeko eta nazioarteko izaera dira. Sortzaileentzat, ikus-entzunezkoetako profesionalentzat eta ikerlariarentzat erakargarri diren jardueren bultzatzaile izango da eta era berean, hiritarren parte hartzea sustatuko du kultura garaikidearen hainbat esparrutan. Lan egiteko lekua izango da, ikusizko eta ikus-entzunezko kultura garaikidearen bultzatzailea, eta hiri bizitzari zabalduetako gunea.

Euren artean estuki lotutako bost funtzioaren inguruan egituratuko dira Tabakalerako jarudetak: ekoizpena / erakusketa / eztabaida / trebakuntza / artxi-batzea – hedapena. Eraikina bera ere behar horien arabera egokituko da, honako espazio mota hauekin:

#### **Ekoizpenerako espazioak**

Artistei, profesionali, zinegileei, sortzaileei eta, orokorrean, hiritarrei utziko zaizkien espazioak, zentroko instalazioen barruan proiekturen bat edo euren lan propioak burutu ditzaten.

Uzteko espazioak, edizio aretoak, laborategiak, bilera gelak, platoak, etab.

#### **Erakusketarako espazioak**

2 proiektzio areto

Soinu espazioa

Erakusketa eta interbentzio espazioak

#### **Mediateka Digitala**

#### **Harremanerako eta aisialdirako espazioak**

Eraikina hiritarrek erabil eta gozatu dezaten zabalduko duten espazioak

Barneko kale bat

Plaza polibalentea

TBkafea

Jatetxe zerbitzuak

#### **Trebakuntzarako espazioak**

Ekoizpenerako espazioez gain (horiek ere trebakuntzarako erabiliko baitira), zentroan gelak eta erabilpen anitzeko gunek bat izango dira.

#### **Zentroaren kudeaketarako espazioak**



## 6. TABAKALERAREN BERRITZE ARKITEKTONIKORAKO LEHIAKETAKO OINARRIEN LABURPENA

### Beste erakundeak

Etxepare Institutua  
Euskadiko Filmatagia

14

### JARDUKETAREN OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Eraikinaren berezitasunagatik, bere balio arkitektonikoagatik eta etorkizuneko zentroak ere fabrika izaera mantenduko duelako, berritze arkitektonikorako lehiaketaren oinarrietan eraikinaren izaera arkitektonikoa funtsean mantentzeko beharra zehaztu zen, desegokitzat joz eraikina oinarritik eraldatzen zuten interbentzioak.

Xede honekin, Lehiaketaren oinarrietan kontuan hartzeko zenbait irizpide zehaztu ziren:

- Begirunea eraikinaren berezitasun eta fabrika-izaerari.
- Funtzionaltasuna, Tabakalera proiektuaren zerbitzura jarri beharreko espazioak asmatuz.
- Moldagarritasuna haren erabilera anitzetara
- Konektibitatea, komunikazioaren azken teknologiak txertatuz
- Jasangarritasun energetiko eta bioklimatikoa,
- Hiririari eta herritarren erabilera libreari zabaltzea.

### PROIEKTUAREN KOSTUA

Berritze arkitektonikoko lanen exekuzio materialerako 42.300.000€ko aurrekontua kalkulatu da;

hasierako balioespen horrek kontuan hartu du existitzen den eraikin baten gaineko interbentzioaren eta garatu beharreko erabileraren espezifikotasuna.



# 1. ERANSKINA CURRICULUM VITAE



## **JUAN MANUEL MONTERO MADARIAGA**

Arkitektoa (Bartzelona, 1944)

15

### **IBILBIDE PROFESIONALA:**

Arkitekto titulua Bartzelonako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (1969).

Estudio profesionala Juli Esteban eta Antonio Fontekin (1973 – 2003)

Egun, estudio propioa du Bartzelonako Balmens kaleko 297.ean, eta beste zenbait profesional kolaboratzaileekin batera taldea osatzen du TAU (Taller de Arquitectura y Urbanismo) izenpean.

Bartzelonako Inguru Metropolitarrako Udalerrien Mankomunitateko Proiektu Metropolitarrako Zerbitzu Burua (1975 – gaur arte)

Planifikazio, arkitektura eta hiri diseinuan lan profesionalak

Nabarmentzekoa. Gironako Ordenazio Plan Orokorra (1986). Bartzelonako Diagonal Etorbidean 143 etxebizitza (1986). Bartzelonako Hiri Olinpikoko Itsas-Pasealekua (1992). Caldes de Malavellako Golfean 250 logelatako hotela (Girona, 2005). Sant Feliu de Llobregateko Bon Salvador sektoreko urbanizazio proiektua eta 500 etxebizitzaren eraikuntza.

Hirigintza Sari Nazionala (1983)

Finalista FAD sarian (kanpoko espazioak) 1989.

“Universidad Internacional Menéndez y Pelayo”-n arkitektura ikastaroko zuzendaria: “Las escalas del paisaje” (Santander 1994).

Arquinfadeko Presidentea (FADeko Arkitekto eta Barneen diseinatzaileen Elkarte) 1998- 2005.

Arkitektura eta barneen diseinuko FAD Sarietako epaimahaikidea. 1998-2005.

Zabalguneko Komisio Teknikoko kidea (Bartzelonako udala) 2000- 2005.

1. Saria Matadeperan sustapen publikoko etxebizitza sorta baten erredakziorako lehiaketan. (2006ko otsaila).

Arkitekturako FAD Sarietako finalista Bartzelonako Provença kaleko etxebizitza eraikin bategatik (2007)

Hainbat ikastaro eta hitzalditan parte hartu du hizlari moduan

Prentsa orokorrean eta espezializatuan hainbat artikuluren egilea.

Gaur egun proiektuen irakasle elkartua da Bartzelonako la Salle Arkitektura Eskolan

### **AZKEN BOST URTEETAN BURUTAKO LAN NAGUSIAK**

Eraikuntza lanak:

San Feliu de Llobregateko (Bartzelona) erresidentzia, eliza eta liburutegia



“Comtes de Barcelona” hotela handitzeko planta berriko eraikina, Bartzelonako Gracia Pasealekuan. 2005

Caldes de Malavellako Golfean 250 logelatako hotela (Girona, 2005).

Sant Feliu de Llobregateko Bon Salvador sektorean 500 etxebizitzaren eraikuntza.

Etxebizitza eraikina Bartzelonako Provença kalean. 2006

Etxebizitza eraikina Bartzelonako Mallorca kalean. 2007

Alellako (Bartzelona) Cal Doctor sektorean Egoitza multzoa (45 etxebizitza). 2006

500 etxebizitzatako egoitza multzoa Sant Feliu de Llobregateko Bon Salvador sektorean. 2007

Sustapen publikoko 100 etxebizitzatako egoitza-multzoa Mas Sot etorbidea eta Balmes kaleen eta Sant Quirze eta Florida kaleen artean, Maradeperan (Bartzelona)

Urbanizazio lanak:

Alellako (Bartzelona) Cal Doctor sektoreko urbanizazio proiektua. 2005

Sant Feliu de Llobregateko Bon Salvador sektoreko urbanizazio proiektua (Bartzelona). 2006

Calella de Mar-eko SUD 4 Sektore erresidentziala “Riera Capaspre” eta SUD 6 Sektore Industrialeko plangintza partziala eta birpartzelatze-proiektua eta urbanizazio proiektua. (2008. Lehen aprobazio fasean)

Plangintza lanak:

Alellako (Bartzelona) Cal Doctor sektoreko plangintza partziala. 2004

Sant Feliu de Llobregateko (Bartzelona) Bon Salvador sektoreko Plangintza berezia. 2005

Matadeperoko (Bartzelona) Ordenazio Plan Orokorra. 2006

Besalúko (Girona) Ordenazio Plan Orokorra. 2006

Mekako hiri berrirako (850.000 biztanle), Arabia Saudin, Master Planner-a. 2006

Lehiaketak

Lehen saria Matadeperako udalak deitutako lehiaketa publikoan. Lehiaketaren xedea, babestutako 100 etxebizitzaren eraikuntza. 2006 (Sariak bererekin zekartzan obren proiektuaren erredakzioa eta zuzendaritza)

Beste lan batzuk:

Bartzelonako Loidi jatetxea (barneen diseinua) (Naiara Montero Viarrekin elkarlanean). 2007

Pergola baten eraikuntza eta lorategiaren egokitzapena Plentziako familia bakarrenko egoitza batean (Bizkaia). 2007



**AZKEN ARGITALPENAK**

17

2005-2006. Jon Monteroren lanari buruzko artikulua, hiru proiekturen hautaketa-rekin:

1- Buen Salvador de Caéneko Alaben Komunitatearentzat egoitza erlijiosoa (Bartzelona)

2- “Hotel Comtes de Barcelona”-ren erreforma eta handitzea

3- Matadeperan (Bartzelona) sustapen publikoko 100 etxebizitzaren eraikuntza

2005-2006. “Compromiso urbano, fe social”. Arquitectura Plus aldizkaria, “Visión y obra de 44 arquitectos españoles”, 3. alea, 114-115 orr.

2007. Caldes de Malavellako Golf zelaiko Hotel Melià Golf Vichy Catalán-erako proiektuari buruzko artikulua, “El Hotel Melià Golf Vichy Catalán nos remite a la tradición mediterránea de la modernidad”, Via Hotel aldizkaria, 6. zbkia. (2007ko maiatza), 23. orr.

Matadeperan eraikitzeke 100 etxebizitzaren proiekturako lehiaketan lortutako lehen sariari buruzko artikulua, “Catifes. Habitatges sociaux en Matadepera”, Future Arquitecturas aldizkaria, 6. zbkia, (2007), 32-35 orr.



**NAIARA MONTERO VIAR**  
Arkitektoa, (Bartzelona 1975)

**IBILBIDE PROFESIONALA:**

1975ean Bartzelonan jaioa

1992-2000 Bartzelonako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan arkitektura ikasketak burutu zituen.

Epe horretan zenbait estudio profesionalekin kolaboratzen du.

1996 -1998 Ignacio de Sola Moralesen arkitektura estudioan (Bartzelona) kolaboratzen du

1998 Rafael Moneoren New Yorkeko estudioan kolaboratzen du

1999-2000 Antonio de Moragasen Bartzelonako estudioan kolaboratzen du

1999 Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoan gradu ondoko ikastaroa "Interior e Interiores"

2000-2003 Ikasketak bukatu, Londresen kokatzen du bizilekua eta arkitekto gisa kolaboratzen du Sir Nicholas Grimshaw-ren arkitektura estudioan

2003-2005 Sir Nicholas Grimshaw sinatutako Fundación Caixa Galiciako obran, A Coruñan, arkitekto arduraduna

2005-gaur arte Bere estudio propioa sortzen du: Lanak:

(2005- 2006) Bartzelonako Lasarte jatetxea

(2004-2006) A Coruñako hiri zaharren Loft baten zaharberritzea,

(2006- 2007) Bartzelonako Loidi jatetxea

(2006- 2008) Madrilgo Aparejadoreen Elkargo Ofizialeko eraikinaren erreforma

2006 – gaur arte Fundación Caixa Galiciano obra guztien arkitekto arduraduna

**ARGITALPENAK**

2002 "Diseño de interiores" aldizkarian kolaborazioa: "Reportaje de un loft en Manhattan"

2005 LA Vanguardiko Magazine-en argitalpena; "Arquitectos jóvenes viviendo en los cascos antiguos"

2006 Casa Viva aldizkarian: "Reforma de una vivienda en la ciudad vieja, A Coruña diseñada por Naiara Montero"

2008 Naiara Montero idatzitako artikulua argitalpena "Cercha" aldizkarian, Madrilgo Aparejadoreen elkargo Ofizialeko eraikinaren zaharberritzeari buruz

**JARDUERA AKADEMIKOA:**

2000 Gradu ondoko ikastaroa: "Interior e Interiores", Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoan.



2006-2007 3. zikloa burutzen du

19

2008 Erakusketa espazioei buruzko DEA aurkezten du

Gaur egun Erakusketa espazioei buruzko tesia garatzen ari da eta irakasle da Arkitektura Goi Unibertsitate Teknikoan (CESUGA)

**BURUTUTAKO LANAK:**

Eraikuntza lanak:

Fundación Caixa Galicia A Coruña (Galizia). 2000

Zaharberritze lanak:

Gran Teatro del Liceu. Bartzelona. 1997-98

Loft-a Sohon. Manhattan (New York). 1998

A Coruñako Hiri Zahareña Loft baten zaharberritzea. 2004-2006

Madrilgo Aparejadoreen Elkargo Ofizialaren eraikinaren erreforma (BIC) 2006-2008

Barneen diseinu lanak:

Martín Berasategiren Lasarte jatetxea. Gracia Pasealekua (Bartzelona) 2005-2006

Loidi jatetxea (Bartzelona) 2006-2007

Ferroleko Fundación Caixa Galician kafetegi bat gehitzea. 2008

Espazio iragankorrak

Monforte de Lemos-en (Galizia), Ribera Sacra ardoei buruzko erakusketaren muntaia

Lehiaketak:

Eden Project. Cornwall (Ingalaterra) 2001

Control Tower. Farnborough Airport (Ingalaterra) 2001

Spencer Street Station. Melbourne (Australia) 2002